



Andoaingo Udala

Hartu hitza! Martxan da 2024ko aurrekontuei begirako prozesu partehartzailea

Aurrekontua da udalak gizarte bizitzan eragiteko duen tresna eraginkorrena. Beste urte batez, aurrekontuaren partida bat herritarren parte-hartze zuzenaren ondorioz exekutatu da. Zehazki, 250.000 euroko diru-partida zertan inbertitu erabakitzeke ahalmena izango dute. 16 urtetik gorako herrikidea bazara, parte har dezakezu irailean abiatu den ekimenean.

“Hartu hitza!” izango da aurtengo lelo nagusia. Aurreko urteetako egitasmoekin alderatuta, prozedura antzekoa da eta, beraz, mekanika ezaguna izango zaio aurreko urteetan parte hartu duenari.

Badira bi berritasun nagusi:

Lehena, egitasmoa herritarrarengana hurbiltzeko asmoa. Eta horrexegatik kanpainaren bi fase ezberdinetan informazio gune irekia jarriko da herritarren eskura, toki ezberdinetan. Bertan, herritarrei aurrez aurreko arreta eskainiko zaie zalantzak argitzeko, proposamena aurkezten laguntzeko eta beharrezkoa den informazio guztia emateko.

Bigarrena, 16-18 urte arteko gazteengan eragiteko borondatea. Herriko ikastetxeetan parte hartze prozesuari buruzko saio bana egin nahi da, egitasmoa aurkezteko eta gazteei bertan parte hartzeko gonbitea luzatzeko. Parte hartzearen kulturaren sakontzeko baliatu behar dira horrelako egitasmoak. Gazteen ikuspegia txertatzeko aukera izango da, beraz, prozesu honetan.

H herritarrei parte hartzeko deia luzatu nahi zaie. Egun hauetan eskuorria jasoko dute etxean, eta kalean jarriko den informazio puntuan edota Andoaingo Udalaren webgunean informazioa herritarren eskura ipiniko da.

Xehetasunak

NOLA PARTE HARTU?

16 urte edo gehiago badituzu, aurkeztu proposamen zehatz bat urriaren 6a baino lehen. Andoainerako eskusiboa dena, udal- eskumenekoa eta 2024an gauzatzekoa.

NON PARTE HARTU?

Txarteltxoak honako guneetan uzten: Udaletxea (Ataria), Urigain, Kiroldetxea, Arrate Frontoia, Anbrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen Zentroa, Bastero Kulturunea, Liburutegia, Gazte lokala edo Ludoteka.



Andoaingo Udala

Online: www.andoain.eus/eu/partehartzea webgunean.

NOIZ?

Ideien aurkezpena:
Irailak 18-Urriak 6.

Balorazio teknikoa:
Urriak 9-20.

Herritarren bozketa:
Azaroak 15-30.

